



**LUIS INTXAUSPE AROZAMENAK**, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko  
Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

### **ZIURTATZEN DU**

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko urtarrilaren 22an agindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Garbitania Zero Zabor S.M.k gaikako hondakinen bilketa egiteko ontzien horniketa kontratatzeke behin behineko esleipena erabakitzea.

Aipatu zerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera emateko eskaera egitea erabaki zen 2018ko urriaren 29an egindako Administrazio Kontseiluan. Eskaera egun horretan onartu zen eta ondoren, kontratazio mahaiak plegu administratiboak eta teknikoak prestatu zituen, 2018 azaroaren 23an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zituenak. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2018ko azaroaren 26 argitaratu zen Garbitaniaren webgunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratatzailearen profilean.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan ondorengo eskaintzak jaso ziren lote bakoitzeko:

<b>LOTE ZENBAKIA</b>	<b>ESKAINZAILEAK</b>	<b>DAGOKION ZENBAKIA</b>
<b>1 LOTEA</b>	URBAN SOLUTION	1
	MAYA	3
	ALQUIENVAS	6
<b>2 LOTEA</b>	URBAN SOLUTION	1
	MAYA	3
<b>3 LOTEA</b>	URBAN SOLUTION	1
	MAYA	3
	ID WASTE	4
<b>4 LOTEA</b>	URBAN SOLUTION	1
	CONTENUR	2
	MAYA	3
	PLASTIC OMNIUM	5
<b>5 LOTEA</b>	URBAN SOLUTION	1
	CONTENUR	2
	MAYA	3
	PLASTIC OMNIUM	5



Eskaintza horiek kontratazio mahaia osatzen duten zerbitzu juridikoak, Ingurumen Teknikariak, Koordinatzaile batek eta langileen ordezkari batek, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, aztertu dute.

Lehenengo eta behin pleguetan eskatzen diren administrazio dokumentuak behar den bezala aurkeztu diren aztertu da eta ondoren dokumentazio teknikoaren gutun azalak irekitzera jo da.

Eskaintzetan aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan da balorazio teknikoa burutzeko. Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, zerbitzuaren deskribapena, antolaketa eta jarraipena; ontzien ezaugarriak eta puskatutako ontziak birziklatzera bideratzeko plana baloratu dira. Atal horretako gehienezko puntuaketa 40 puntukoa izanik, eskaintzaileek lortutako puntuaketa lote bakoitzeko ondorengoa da:

LOTE 1	
Eskaintzailea	Lortutako puntuaketa
URBAN SOLUTION	25
MAYA	4
ALQUIENVAS	Baztertuta (ikus txosten teknikoa)

LOTE 2	
Eskaintzailea	Lortutako puntuaketa
URBAN SOLUTION	20
MAYA	10

LOTE 3	
Eskaintzailea	Lortutako puntuaketa
URBAN SOLUTION	19
MAYA	18
ID WASTE	20



LOTE 4	
Eskaintzailea	Lortutako puntuaketa
URBAN SOLUTION	9,5
CONTENUR	14
MAYA	5
PLASTIC OMNIUM	31,5

LOTE 5	
Eskaintzailea	Lortutako puntuaketa
URBAN SOLUTION	8
CONTENUR	12
MAYA	6
PLASTIC OMNIUM	30

Ondoren, modu automatikoan kuantifika daitekeen dokumentazioaren balorazioa burutu da, Plegu Administratiboetako 16. atalean zehazten den moduan. Atal honi 60 puntu dagozkie gehienez, eta eskaintako prezioari eta entrega epeari dagokion puntuaketa ondorengo da:

LOTE 1			
Eskaintzailea	ESKAINZA EKONOMIKOAREN PUNTUAKETA	ENTREGA EPEAREN PUNTUAKETA	GUZTIRA
URBAN SOLUTION	50	10	60
MAYA	Baztertua	-	-
ALQUIENVAS	Baztertua	-	-



LOTE 2			
Eskaintzailea	ESKAINZA EKONOMIKOAREN PUNTUAKETA	ENTREGA EPEAREN PUNTUAKETA	GUZTIRA
URBAN SOLUTION	50	10	60
MAYA	Baztertua	-	-

LOTE 3			
Eskaintzailea	ESKAINZA EKONOMIKOAREN PUNTUAKETA	ENTREGA EPEAREN PUNTUAKETA	GUZTIRA
URBAN SOLUTION	35,71	10	45,71
MAYA	Baztertua	-	-
ID WASTE	50	4	54

LOTE 4			
Eskaintzailea	ESKAINZA EKONOMIKOAREN PUNTUAKETA	ENTREGA EPEAREN PUNTUAKETA	GUZTIRA
URBAN SOLUTION	43,25	10	53,25
CONTENUR	50	0,91	50,91
MAYA	Baztertua	-	-
PLASTIC OMNIUM	42,82	1,33	44,15

LOTE 5			
Eskaintzailea	ESKAINZA EKONOMIKOAREN PUNTUAKETA	ENTREGA EPEAREN PUNTUAKETA	GUZTIRA
URBAN SOLUTION	41,83	10	51,83
CONTENUR	50	0,91	50,91
MAYA	Baztertua	-	-



PLASTIC OMNIUM	39,47	1,33	40,80
----------------	-------	------	-------

Oro har lote bakoitzeko puntuaketa altuena lortu duten aurkeztutako eskaintzek pleguetan eskatutakoa betetzen ote duten aztertu da. Azterketa horren ondorioz ziurtatzen da puntuaketa altuena lortu duten eskaintzek betetzen dituztela eskatutako baldintzak.

Eskaintza horiek egokiak izan direla kontuan izanik, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari zerrendatzen diren ondorengo eskaintzaileak esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

LOTE 1: URBAN SOLUTION – 85 puntu

LOTE 2: URBAN SOLUTION – 80 puntu

LOTE 3: ID-WASTE S.L. – 74 puntu

LOTE 4: PLASTIC OMNIUM – 75,65 puntu

LOTE 5: PLASTIC OMNIUM – 70,80 puntu

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 22an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

**Lehenengoa.-** Gaikako hondakinen bilketa egiteko ontzien horniketaren kontratua ondorengo enpresei esleitzea adierazten den salneurrian (BEZ kanpo).

Lote zb	Enpresa	Puntuaketa orokorra	Eskainitako lotearen prezioa lau urterako
1	Urban Solution	85	26.124,00EUR
2	Urban Solution	80	3.656,00EUR
3	ID-Waste	74	1.800,00EUR
4	Plastic Omnium	75,65	33.486,00EUR
5	Plastic Omnium	70,80	15.900,00EUR

**Bigarrena.-** Aipatu enpresei erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:

- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.



- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzen konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken erreziboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.

**Hirugarrena.-** Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratuak gauzatu ditzan.

10 laneguneko epealdiaren barruan aipatu enpresek eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu dituzte.

Horiek horrela, eta kontratazio organoak horrela erabakita kontratua **esleितutzat** ematen da aurreko taulan jasotako prezioetan eta Urban Solution (1 eta 2 loteak), ID-Waste (3 lotea) eta Plastic Omnium (4 eta 5 loteak) enpresei jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaie.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2019ko otsailaren 7an

O.I.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA